



SEPArako MIGRAZIOA JARRAITZEKO BATZORDEA

SEPA ZUZENEKO ZORDUNKETEN FITXA, oinarrizko bertsioa

Oinarrizko ezaugarri nagusiak

Eragiketak **eurotan**.

- Hartzekoduna eta zorduna **partikularrak edota enpresak** izan daitezke.
- **Erabilgarritasun unibertsala**, zordunketak egiten dituzten erakunde guztiek onartzen dute modalitate hori.
- **Irisgarritasuna**: SEPA eremuan dagoen edozein kontu.
- **Mandatu**: zordunketa-kontuko zordun titularrak helbideratze-agindua edo mandatua sinatu beharko du.
- **Mandatu-zaintza**: hartzekodunak mandatua zaindu beharko du, bai eta horren balizko aldaketak eta ezeztapena ere, eskatu ahal zaion denboran.
- Hartzekodunak **alde zurretik jakinaraziko dio zordunari**, arlo horretako uanean uneko araudiak ezartzen duenaren arabera.
- **Hartzekodunaren identifikagailu bakarra** eta **mandatuaren erreferentzia** nahitaezkoak dira; izan ere, hartzekoduna eta horren babespean egiten diren zordunketak identifikatuko dituzte. Kobrantza errepikarieretan ezingo dira aldatu.
- **IBAN kodea** izango da zordunaren kontuko identifikagailua.
- **BICaren** bidez identifikatuko da zordunaren finantza-erakundea.
- **Formatu zehatza** behar du: **ISO 20022 XML** formatua aginduak erakundeari fitxategietan igortzeko.
- **Zordunketa-sekuentzia**: aurkeztuko den zordunketa mota adierazi beharra dago (FIRST – lehenengoa, RCUR – errepikaria edo lehenengoa, OOFF – bakarra edo FNAL – azkena).
- **Aurkezpena**: oro har, banku jaulkitzaileari kobrantza-data baino 3 egun lehenago aurkeztu beharko zaizkio.
- **Itzulketa-epeak**
 - 8 aste gehienez, bezero zordunak eskatuta edozein arrazoi dela eta.
 - 13 hilabete gehienez, baimendu gabeko ordainketetarako (bezeroak aginduta). Kasu horretan, hartzekodunak itzulketari aurka egin ahal izango dio indarrean dagoen mandatuaren kopia aurkeztuta.
- **Ordainketari buruzko informazio gehiago**: 140 karaktere, gehienez ere.